

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Euskara ikasteko laguntzen deialdia eta oinarriak. 2015-2016 ikasturtea

Alkatearen 2016ko irailaren 26ko 160926A Dekretuaren bidez, euskara ikasteko laguntzen deialdia eta oinarriak onartu ziren 2015-2016 ikasturterako, euskara ikasi dadin sustatzeko, eta testua osorik argitaratzen da, guztiek jakin dezaten.

Ebazpen hau behin betikoa da eta administrazio bidea agortzen du.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen aurka interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dituzte ebazpen hau argitaratzen denetik aurrera.

Hala ere, lehenago aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote alkateari, eta horretarako hilabete izango dute oinarriak argitaratzen direnetik aurrera.

Aurreko ez gain egoki irizitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Honekin batera doa oinarrien testu osoa, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 52.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri argitaratu dadin, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak beteko direla bermatzeko.

Interesdunek 2016ko urriaren 1etik 31ra arteko epea izango dute dirulaguntza eskaerak aurkezteko, beharrezko agiri guztiekin batera.

Legutio, 2016ko irailaren 26a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK 2015-2016 IKASTURTEA

1. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da euskara ikasteak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzea.

Deialdi honen bidez euskara ikastaro hauek lagunduko dira diruz:

– Euskaltegi homologatuetako euskara ikastaroak, 2015eko urriaren 1etik 2016ko ekainaren 30era (biak barne) egindakoak, araubide arruntean zein barnetegian.

– Euskaltegi homologatuetako udako euskara ikastaro trinkoak, ekainean, uztailean, abuztuan edo irailean egindakoak, araubide arruntean zein barnetegian.

Bazter utzitakoak

Ondoko gastu hauek ez dira sartzen, mota guztietako ikastaroetan: joan-etorrien gastuak, mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

2. Onuradunak

Deialdi honen onuradun izan daitezke Legution erroldatuta dauden pertsona fisikoak, ikastaroa eman den aldiaren erroldatuta egon direnak, eta, horrez gain, deialdi honen bosgarren oinarrian zerrendatutako betekizunak betetzen dituztenak.

Ezin izango dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

3. Aurrekontu kreditua

Euskara ikasteko dirulaguntzetarako aurrekontu aplikazioa jasotzen du Legutioko Udalaren aurrekontuak.

Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa 3.000 euro da, eta 335.481.010 aurrekontu partidaren kontura finantzatuko da.

4. Esleipen araubidea

Lehiaketa izango da dirulaguntza emateko prozedura. Eskaerak erkatu egingo dira, betiere berrmatuko direlarik azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritako publikitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, diskriminaziorik ez, eta eraginkortasun eta efizientziaren printzipioak.

Urteko ikastaro edo maila bakarrerako emango da dirulaguntza, salbuespenak salbuespen (lan kontuak, gaixotasunak, ikastaroa berriz egin beharra gainditu ez delako, eta abar); halakoak dagokion batzordeak aztertuko ditu.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa izango da udal honek erakunde homologatuarekiko hitzarmenaren bidez eskainiko dituen eta udalerrian bertan eta denbora tarte berean emango diren ikastaroen zenbatekoa, kontuan hartu gabe zenbatekoaren zein gastu egiaztatuko den.

5. Dirulaguntzak emateko betekizunak

Deialdi honetako laguntzen onuradun izateko betekizun hauek nahitaez bete behar dira:

- a) Legutioko udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa ematen den aldiaren.
- b) Euskara ikastaroa egin izana deialdi honen lehenengo oinarrian adierazitako aldietan eta euskaltegi homologatu batean.
- c) Euskara eskolen ehuneko 80ra edo gehiagora joan izana egiaztatzea (hori egiaztatzeko kasuan kasuko euskaltegi zuzendaritzak emandako ziurtagiria baino ez da onartuko).

6. Eskaerak aurkezteko modua, epea eta tokia

Eredu ofizialarekin (l. eranskina) bat etorriko dira eskaerak eta Legutioko Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira (Karmen kalea, 10); halaber, posta elektronikoa (info@legutio.eus) edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 38. artikuluan adierazitako edozein bide erabili ahalko da eskaerak aurkezteko.

Horren harira, oinarri hauekin batera doaz aurkeztu behar diren inprimaki ereduak, eta jendeak eskuragarri izango ditu udal bulegoetan eta udalaren webgunean (www.legutio.eus) ere. Ereduekin batera, deialdi honetako 7. oinarrian aipatutako agiriak ere eraman behar dira.

Orobat, eskaerak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu daitezke udalaren webgunean (www.legutio.eus).

Eskaerak eta agiri osagarriak 2016ko urriaren 1etik 31ra bitartean aurkeztu behar dira.

Eskaerak edo berarekin batera aurkeztutako nahitaezko agiriek hutsen bat badaukate edo aurkeztu beharreko guztia ez bada aurkeztu, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, eskaeraren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, aurkitutako akatsak zuzendu ditzaten. Epe hori igaro eta esandako akatsak ez badituzte zuzendu, beren eskaerari uko egiten diotela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

7. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskaera orria, euskara ikasteko laguntza jasotzeko (I. eranskina).
2. Egindako ordainketaren frogagiria.
3. Euskaltegiko zuzendaritzaren ziurtagiria, datu hauek jasoko dituen: ikaslearen datuak, egindako maila, asistentzia eta ikastaroaren hasiera eta amaiera egunak.

(*) Ikastaroa barnetegiren batean eginez gero, euskaltegiaren ziurtagiria, zeinetan xehatu egingo baitira gastuak: irakaskuntzakoak alde batetik, eta mantenukoak eta ostatukoak bestetik.

4. NANaren fotokopia.
5. Zinpeko aitorpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik (II. eranskina).

8. Eskaerak aztertzea, ebaztea eta organo eskuduna

Udal honetako euskara atalak aztertuko ditu eskaerak, eta txosten tekniko bat idatziko du, gero ebazpen proposamenaren oinarria izango dena.

Alkateak emango du behin betiko ebazpena, dekretu bidez, eta erabaki horren berri emango dio Udalbatzari egingo den hurrengo bilkuran.

Ebazpenean onuradunen eta jasoko dituzten zenbatekoen zerrenda jasoko da. Dirulaguntza ukatzen bada, ukatze horren arrazoiak emango dira.

9. Ebazteko epea

Deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sei hilabete izango dira gehienez ere prozedura ebatzi eta haren berri emateko.

Gehieneko epea igaro bada eta interesdunei ebazpenaren berri eman ez bazaie, eskaera administrazio isiltasunagatik gaitzetsi egin dela ulertuko da.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko diote alkateari hilabeteko epean, ebazpen hori ematen denetik aurrera; bestela, zuzenean aurkeztu ahalko dute administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean. Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtso ere aurkeztea.

10. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hauste eta zehapenei buruzko arloan, osorik aplikatuko dira 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, IV. tituluaren jatorriko arauak eta lege horren erregelamendua onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuaren IV. titulua.

11. Aplikatzekoa den araudia

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen erregelamendua onartzen duena, eta Legutioko Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2005eko martxoaren 21eko ALHAOn argitaratua.

Legutio, 2016ko irailaren 26a

Alkate-lehendakaria

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA

I. ERANSKINA

**EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZA JASOTZEKO ESKABIDEA
LEGUTIOKO UDALAREN ALKATE-LEHENDAKARIARIA**

ESKATZAILEEN DATUAK

Izen-abizenak:

NA zK:

Helbidea:..... Herria:

Telefonoa:.....

BANKU/KUTXAKO DATUAK

Banku/kutxa:.....

Sukurtsala:.....

Kontu zenbakia:.....

Titularra:.....

AZALPENA

Euskara ikasteagatik, Legutioko Udalak Euskara Batzordearen bitartez, letuioei dirulaguntzak ematen dizkie.

Nik, honako ezaugarriak dituen euskara ikastaroa/k egin dut/ditut:

Euskategia:.....

Gainditutako urratsak:

Ordaindutako matrikula:.....

ESKAERA

Horrexegatik dagokidan dirulaguntza eskatzen dizut.

Legution, 20...ko.....ren....(e)an

II. ERANSKINA

ZINPEKO AITORTZA

Nik,.....Jaun/Andrea, NAN zk.....eta
helbidea.....duenak

Zin egiten dut, Legutioko udalari eskaturiko diru-laguntza kopurua aintzat hartuta eta gainerako edozein erakunde publiko zein pribatutik jaso ditzakedan diru-laguntzak kontuan hartuta, ez dudala gain finantzaketarik izango.

Eta Legutioko Udalean horrela jasota gera dadin, zinpeko aitortza hau egiten dut.

Legution,....(e)ko.....ren ...(e)an

(Sinadura)